


ERABIL KOLEKTIBOA

●●● ERABIL kolektiboa, euskalgintzako profesionalen eta herritarren osatu elkarte irekia da.

●●● Diziplinartekoa eta irabazi-asmorik gabekoa, euskararen biziberritzearen arloan ekarpen konkretu eta landua egitea du xede.

●●● Herritarren eta egituren elikatzean lagunduko du, ikuspegi soziolinguistikoa partekatuz:

- ▶ interbentzio zuzenen bitartez,
- ▶ material mutualizatua libreki eskuragarri emanez.



Azken hamarkadetan, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoan ere euskararen berreskuratze prozesu bat eramaten ari da.

Lehenago beste lurralde batzuetan gertatu den bezala (EAE, Katalunia, Quebec, Eskozi...) horrek aldaketak eragiten ditu hiztunengan, baita gure egituretan ere (familia, elkarte, ikastetxe, haurtzaindegi, enpresa, merkataritza, lurralde kolektibitate...).

Erabilpenaren aroa zabaldu

Gaur egun arte, euskararen biziberritze prozesuaren ardatz nagusia transmisioa izan da, eta jomuga nagusia haur eta gazteak. Horren osagarri, azken urteetan helduen erabilera azkartzeko ekimen sozialak sortu dira Euskal Herrian.

Erabilpenaren aro berri horrek galdera eta problematika berriak sortuko ditu. Gaur egun, euskararen aldekotasuna zabaltzen hasten den garaiotan, soluzio konkretuen eskasa nabarmentzen hasia da. Euskararen alde izaitetik euskaraz egitera pasatzea da erronka.

Erabilpena garatu arau egingarritasunaren muga fite agertuko da: kudeatzen ditugun bilkuretan, sortzen ditugun komunikazio euskarrietan, antolatzen ditugun bestetan, gure familietan, lantokietan...

Trantsizioa lagundu

Aldaketak, gure praktikak galdekatu eta berritzera garamatzen heinean, erresistentziak sor ditzake. Prozesu hori lagundu behar da, antolatu, arautu, planifikatu. Soluzioak eta teknikak existitzen dira.

Hizkuntza biziberritzea, prozesu unibertsala da. Munduan zehar esperientzia, jakintza eta kontzeptu asko landu da. Gure egituretan ere jakintza asko badugu. Hori guziaz dugu elkarrekin bildu, landu eta jendarteratu behar euskara gehiago entzun ta ikusteko.



NOR GIRA?

ERABIL kolektiboak aniztasunean aberasten den talde irekia izan nahi du.

2018ko irailean, sentsibiltate, formakuntza, belaunaldi edota ibilbide profesional ezberdinetako hamarbat pertsonen osatua da.

NOIZ SORTU GIRA?

2017ko azaroan, Baiona-Angelu-Miarritze hiri eremuko hiztunen aktibazioa oinarri zuen BAM dinamika soziala piztu zen. Horren kariatara, 6 lagunek 2 orduko 2 prestaketa saio eraiki zituzten (Gemma Sanguinesen TELP tailerrak eta Topagunearen "Zergatik ez?" saioak oinarri). 300 herritar bildu eta 27 saio eskaini ziren.

2017ko abenduan, taldekide batzuek hasitako lana sakontzeko gogoia izan zuten. Horren egikaritzeko elkarte autonomo bat sortua izan da 2018/03an.

ZER EGITEN DUGU?

Euskararen biziberritzean erabilgarria izan daitekeen materiala (tresnak, kontzeptuak, teoriak, diskurtsoak, metodoak, mekanismoak, figurak)...

- 1) Bildu.
- 2) Landu.
- 3) Jendarteratu.

NOLA LAN EGITEN DUGU?

Euskara da taldearen komunikazio hizkuntza eta horizontaltasuna funtzionatzeko moldea.

Zehazki, era honetan egin nahi dugu lan:

- 1) **Bildu:** kideen auto-formakuntza antolatuz • gaiari lotutako literatura irakurriz • jardunaldietan parte hartuz.
- 2) **Landu:** errealitateari egokituz • saio eta material berria sortuz (bideo, infografia, txosten) • diziplinarteko ekarpenak sustatuz.
- 3) **Jendarteratu:** kalitatea lehenetsiz • dimentsio herritarra mantenduz • autonomizazio printzipioa segurtatuz • euskara erdigunean emanez • gure praktikak orohar bergogoetatuz hobetze bidean.



FORMA EZBERDINETAKO INTERBENTZIOAK:

- Tailerrak • Gogoeta parte hartzaileak • Hitzaldiak •
- Mahai-inguruak • Kronikak • Prestaketak •

LAN PISTA EZBERDINAK:

SAILA: OINARRIZKO JAKINTZAK

- Soziolinguistika eta hizkuntza ekologiaren oinarriak
- Euskararen biziberritzea lankidetzan: eremuak, funtzio banaketa
- Gure egiturak aldatzen lagundu: euskararen adibidea
- ...

SAILA: OINARRIZKO TEKNIKAK

- Euskararen erabilera harrera eta errepresentazio funtzioetan
- Bilkuren dinamizazioa eta hizkuntzen kudeaketa
- Komunikazioa eta euskara
- ...

SAILA: EREMUAK

- Euskara familian
- Euskara bizi sozialean
- Etorri berriak eta euskara
- Euskara gure bestetan
- ...

#USTEAKERDIUSTEL

... ERABIL KOLEKTIBOA ez da ...

- ... EXISTITZEN DENA ORDEZKATZERA HELDU: sostengu funtzio bat betetzera gatoz, osagarriak izateko sortua.
- ... AHOLKULARITZA ENPRESA BAT: herri mugimendutik gatoz, interbentzio labur eta soluzio operazionalak lehenesten ditugu.
- ... ZERBITZU AGENTZIA BAT: ez ditugu itzulpenak egiten, komunikazio estrategiak eraikitzen, euskara planak diseinatzen.
- ... BESTE EGITURA BATEN ADARRA: elkarte autonomia gira baina ez dugu lidergorik bilatzen, elgarren arteko interakzioan asko dugu irabazteko.

ERABIL KOLEKTIBOA

•• erabil.kolektiboa@gmail.com •• 06 59 21 78 40 •• Helbidea – 64100 Baiona ••
•• SIRET 843 026 857 00014 •• APE 9499Z ••

